



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2020.02.25ean EGINDAKO  
BILKURAKO AKTA**

**LEHENDAKARIA**

MAITE ANTON LENO

OÑATI

**BOKALAK**

GARAZI LARREA ZUMELAGA  
UNAI ELKORO OIANGUREN  
MARIA UBARRETXENA CID  
MAITANE MUÑOZ GOICOECHEA  
ANDER GARAY ZABALETA  
ARITZ MURUA ACHA  
GORKA ARTOLA ALBERDI  
AINHOA LETE ZABALETA  
CRISTINA MARQUINA IGARZA  
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA  
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA  
EUGENIO OTSOA UGALDE  
IZARO ELORZA ARREGI  
ANIK ZUBIZARRETA ARTURO

ANTZUOLA  
ARETXABALETA  
ARRASATE  
ARRASATE  
ARRASATE  
ARRASATE  
BERGARA  
BERGARA  
BERGARA  
ELGETA  
ESKORIATZA  
LEINTZ-GATZAGA  
OÑATI  
OÑATI

**ETORRI GABEAK**

AINHOA CABERO GARCIA

ARETXABALETA

**BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA**

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

**JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK**

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2020ko otsailaren 25ean, 9:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno anderea, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

### **1.- Aurreko bilkurako akta onartzea**

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2020ko urtarrilaren 28an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

### **2.- ZERBITZU OROKORRAK**

#### **2.1.- 2018ko Kontu Orokorraren behin betiko onespena**

Kontu-hartzailearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- 2018ko ekitaldi ekonomikoko Kontu Orokorrari onespena ematea.

#### **2.2.- Mankomunitatearen erantzukizun zibileko aseguruak kontratazeko espediente berria**

Mankomunitatearen hainbat aseguru pribatu kontratazeko aurrez ateratako lizitazioan erantzukizun zibileko aseguruaren loteak huts gelditu zirenez, espediente berri bat ireki da prozedura ireki bidez aseguru hauek kontratazeko. Kontratazio espediente berri hau ikusirik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Bideratu den kontratazio-espediente berria onartzea. Kontratu hau bi loteetan banatuko da:
  1. LOTEA: Ondarezko Erantzukizun Zibileko Asegurua, Mankomunitateari – jabari publikoko eta ondarezko ondasunen titular gisa eta zerbitzu publikoen emaile gisa– hirugarrenen aurrean egotz dakioken erantzukizunaren gainekoa, turismoaren inguruan ekitaldi publikoak antolatzearen ondorioz egotz dakioken erantzukizuna barne; horien artean: bisita gidatuak, bildotsak burruntzian erretzea, ikuskizunak, mendi ibiliak, etab.
  2. LOTEA: Ingurumen arloko Erantzukizun Zibileko aseguruak, Mankomunitateari, Epeleko hondakin ez-arriskutsuen hondakindegian izan litezkeen kalteen ondorioz, egotz lekioken erantzukizunaren gainekoa.
2. Gastua onartzea, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar den kreditua erreserbatzeko konpromisoarekin.
3. Kontratazio hau arautuko duten Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartzea.
4. Dagokion esleitze-prozedura irekitzea.



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

### **2.3.- Zaldibar eraikina mantentzeko kontratazio espedientea**

Mankomunitatearen Zaldibar eraikineko elektrizitatea, berokuntza, klimatizazioa, hozte-sistema eta ur bero sanitarioko instalazioen mantentze lanak prozedura ireki sinplifikatu bidez kontratatzeko bideratu den espedientea ikusirik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Bideratu den kontratazio-espedientea onartzea.
2. Gastua onartzea, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar den kreditua erreserbatzeko konpromisoarekin.
3. Kontratazio hau arautuko duten Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartzea.
4. Dagokion esleitze-prozedura irekitzea.

### **3.- INGURUMENA**

#### **3.1.- Erabilitako sukalde olioak biltzeko edukiontziz hornitzeko kontratazio espedientea**

Erabilitako sukalde olioak biltzeko edukiontziz hornitzeko prozedura ireki bidez bideratu den kontratazio espedientea ikusirik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Bideratu den kontratazio-espedientea onartzea.
2. Gastua onartzea.
3. Kontratazio hau arautuko duten Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartzea.
4. Dagokion esleitze-prozedura irekitzea.

#### **3.2.- Erabilitako sukalde olioak biltzeko zerbitzua emateko kontratazio espedientea**

Kontuan hartuta Mankomunitateak aurreko puntuan onartutako kontratazio espedientearen xede diren edukiontziak jaso arte ezingo duela zerbitzu berria ematen hasi, eta zerbitzu honen hainbat aspektu sakontzeko helburuarekin, Gobernu Juntak aho batez gai hau Gobernu Juntaren hurrengo bilerara arte mahai gainean uztea erabaki du.



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

### **3.3.- Epeleko zabortegiko atmosferara egindako emisioak eta inmisioak kontrolatzeko kontratua**

Zegokion kontratazio prozedura jarraitu ondoren, 2019ko apirilaren 1ean sartu zen indarrean Epeleko zabortegian atmosferara egindako gas emisioak eta inmisioak kontrolatzeko APPLUS NORCONTROL, S.L. enpresarekin sinatutako kontratua. Kontratu honek urtebeteko iraupena du, kontratazio organoak urtero luzatzeko aukera duelarik, bost urtez gehienez.

Kontratuan izandako hainbat arazo direla eta, Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoak proposatzen du kontratu hau ez luzatzea.

Gobernu Juntak, arduradun teknikoaren proposamena jarraituz, aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipatu kontratua ez luzatzea eta lehenbailehen kontratazio espediente berria irekitzea.

### **3.4.- ARREGI ETXABE JUAN JOSÉ, S.A. enpresarekin sinatutako zur-hondakinak kudeatzeko kontratua luzatzea**

Zegokion kontratazio prozedura jarraitu ondoren, 2018ko martxoaren 1ean sinatu zen ARREGI ETXABE JUAN JOSÉ, S.A. enpresarekin zur hondakinak kudeatzeko kontratua. Kontratu honek bi urteko iraupena du, sinatu zen egunetik aurrera, eta bi aldean adostasunez gehienez ere beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

Ingurumen Zerbitzuaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipatu kontratua beste bi urtez luzatzea.

## **4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA**

### **Enplegua eta Prestakuntza**

#### **4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa; luzapen bat eta fidantza bat bueltatzea**

- Eskaera berri bat: M.M.C.H.

Aretxabaletako Enpresa Ekintzetarako Zentroaren zerbitzu modulu bat erabiltzeko eskaeraren berri eman da. Jarduera honako hau izango da: fisioterapia eta osteopatia zerbitzuak.

Tutorearen txostena ikusirik, eta Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

- M.M.C.H. ekintzaileari baimena ematea Aretxabaletako Enpresa Ekintzetarako Zentroaren (2-AR) zerbitzu modulua eskusiboki erabil dezan.



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Erabaki honen jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean onuradunak ez badu Enpresa Ekimenetarako Zentroaren Erregelamenduaren 8. artikuluan zehazturiko dokumentazioa eta fidantza aurkezten, baimen hau indarririk gabe geratuko da.

Baimen hau urtebeterako izango da eskatzaileak aipatu dokumentazioa eta fidantza aurkezten duenetik aurrera.

- L.H.B. (LHSY-STUDIO) 2. urterako luzapena

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2021eko martxoaren 12ra arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 6-ZM zerbitzu modulua erabiltzeko baimena, L.H.B. ekintzaileari emana, Gobernu Juntaren 2019ko otsailaren 25eko erabaki bitartez.

- S.M.G. (Dir-Dir); fidantza bat bueltatzea

Enpresa Ekintzetarako Zentroaren modulu bat erabiltzeko emandako baimena dela eta aurkezturiko fidantza bueltatzeko espediente ikusita.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudiak 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak aho batez ondorengo ERABAKI DU:

- S.M.G. ekintzaileari bere egunean jarritako 242,25 €-ko fidantza bueltatzea.

#### 4.2.- Debagoieneko Energia Plana bultzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzaren hitzarmena

Gipuzkoako Foru Aldundiak Debagoieneko Energia Plana bultzatzeko proposatutako lankidetzaren hitzarmena eta 2020rako Ekintza Proposamena aztertuz, Garapen Ekonomikorako Agentzia Batzordearen proposamena jarraituz, aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin aipatu hitzarmena sinatzea, proposatutako testuaren arabera, 2020rako ondorengo ekintzak jasoz:

○ Bertako langileak (Oihana Agirre)	20.000.-
○ Kanpoko aholkularitza espezializatua/ Beste zerbitzu batzuk kontratatzea	28.000.-
▪ Iraunkortasun Energetikoaren Legea betetzen laguntzea	6.000.-
▪ Aholkularitza errehabilitazio prozesuetan	3.000.-
▪ Energia berriztagarrien bideragarritasun azterketak	7.500.-
▪ Energia optimizazioa kontsumo handiko instalazioetan	10.000.-
▪ Informazio eta sentsibilizazio ekintzak	1.500.-



## DEBAGOIENKO MANKOMUNITATEA

- Argitalpenak eta bestelako gastuak 2.000.-
- GUZTIRA.....50.000.**

### 5.- LEHENDAKARITZA

#### 5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

**20/04.-** 20/02 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BOSTEHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA LAUROGEITA ZAZPI ZENTIMO (533.757,87 €).

**20/05.-** 1.- Debagoieneko Mankomunitatearen dokumentazioa euskaratik gaztelaniara eta gaztelaniatik euskarara itzultzeko kontratua HORI HORI, S.A. enpresari esleitzea ondorengo prezioan:

- Itzulpen lan arruntak: 0,072 €/hitza, gehi 0,015 €, BEZaren %21ari dagokiona.
- Presa bereziko itzulpen lanak: 0,082 €/hitza, gehi 0,017 €, BEZaren %21ari dagokiona.

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

3.- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikulua betez, Belén Txintxurreta Iparragirre, Mankomunitateko behin behineko idazkaria, izendatzea kontratu honen arduradun.

3.- Enpresa esleipendunak adierazitakoaren arabera, kontratu honen xede diren lanetan arituko diren langileei Langileen Estatutua aplikatuko zaie.

**20/06.-** INÉS CÁCERES turismo teknikariari eskatutako baimena ematea, 2020ko otsailaren 1etik apirilaren 30era arte.

Bere ordezkapena egiteko, I.Z.M. izendatzea bitarteko funtzionario, 2020ko urtarrilaren 29tik apirilaren 30era, egun batzuk lehenago egin beharreko lan zehatzak ikasteko. Hileko 2.797,94 €ko ordainsari gordina emango zaio, honela banatuta:

- Soldata: 1000,45 €. (A2)
- Lanpostu-mailako osagarria: 427,95 €. (18)
- Berariazko osagarria: 1.369,54 €.

**20/07.-** MANEX LARRINAGA langilearen umea zaintzeko heren bateko lanaldi murrizketa onartzea, urtebetez, otsailaren 1etik aurrera.

**20/08.-** 20/03 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HAMABOST MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA BAT EURO ETA HOGEITA SEI ZENTIMO (15.521,26 €).



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**20/09.-** ION AGIRRE langileari eskatutako baimena ematea, 2020ko otsailaren 3tik aurrera.

**20/10.-** - ARANTZAZU URIBESALGO langileari 900 €-ko mailegua ematea, 9 hilekotan itzuli beharko duelarik, martxotik azarora, 100 € hileko.

**20/11.-** 20/04 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAUROGEITA HAMAIIKA MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR EURO ETA BERROGEITA ZAZPI ZENTIMO (91.570,47 €).

**20/12.-** 20/05 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI MILA EHUN ETA HOGEITA LAU EURO ETA HOGEITA ZAZPI ZENTIMO (296.124,27 €).

**20/13.-** 20/06 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HAMALAU MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU EURO ETA LAUROGEITA BOST ZENTIMO (14.853,85 €).

**20/14.-** 1.- Debagoieneko Mankomunitatearen hainbat aseguru pribatu kontratatzeko espedientearen 1 lotea, hau da, ondarea osatzen duten higieinei egindako kalteen gaineko aseguru, AXA SEGUROS GENERALES S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS enpresari esleitzea ondorengo prezioan: urteko 4.956,98 €.

Ezbehar bakoitzeko edo arrazoi bera duten ezebeharren sail bakoitzeko 150 €-ko frankizia ezartzen da.

Honako indemnizazio muga hauek finkatzen dira:

- Ezbehar bakoitzeko indemnizazio **muga orokorra: 700.000 €.**
- Ezbehar bakoitzeko **azpimugak:**

Espezifikatu gabeko egoeretako ondasunak	33.000 €
Berreraikuntza kostuaren hazkundera	110.000 €
Matxura elektrikoak	33.000 €
Hondakinak kentzeko gastuak, eraisteko gastuak...	110.000 €
Sua itzaltzeko gastuak	55.000 €
Profesionalen zerbitzu sariak eta peritazio gastuak	5.500 €
Eraikuntza edota muntaketa	22.000 €
Erosketa edota inbertsio berriak	55.000 €
Alokairuen galera	22.000 €
Nahitaezko irtenaraztea	330.000 €
Kalte estetikoak	16.500 €
Pausaguneko ibilgailuak	660.000 €
Hutsegitea egokitzapen ekipamenduetan	33.000 €
Zaintza gastuak	22.000 €
Ordaindutako kostuen itzultzea	22.000 €
Matxurak lokalizatzearagatikoko gastuak	11.000 €



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Beira, kristal eta argi errotuluen haustura	11.000 €
<b>Lapurreta eta espoliazioa</b>	
Eduki orokorra	250.000 €
Eskudirua	5.000 €
Kalteak	20.000 €
Enplegatuen fideltasunik eza	5.000 €
<b>Ordenagailuak eta ekipamendu elektronikoa (ofimatika eta kudeaketa)</b>	
Eduki orokorra	50.000 €
Alokairu gastuak	5.000 €
Aparteko gastuak	5.000 €
Datuen kanpo eramaileak	5.000 €

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

3.- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikulua betez, Belén Txinturreta Iparragirre, Mankomunitateko behin behineko idazkaria, izendatzea kontratu honen arduradun.

### 6.- GALDE-ERREGUAK

- Iraitzek planteatu du energia berriztagarriak erabiltzeagatik Udalek herritarrei ematen dizkien diru-laguntzen konparaketa bat egitea komeniko litzatekeela.
- Lehendakariak Eusko Jaurlaritzako Ingurumeneko Sailburuordeak atzo bidalitako errekerimenduaren berri eman du. Bi egunetako epean hainbat informazio bidaltzea eskatzen da. Besteak beste, Gobernu Junta honen konpromiso fede-emalea Epeleko zaborteia berririkitzeko Zaldibarreko zaborteiak jasotzen zituen hondakin ez arriskutsuak jasotzeko.

Gobernu Juntakideek adierazi dute Epeleko zaborteia berriro irekitzeko eta Mankomunitatearen lurralde-eremutik kanpo datozen industria-hondakin ez-arriskutsuak jasotzeko behin betiko konpromiso-akordioa hartu aurretik, akordio horri buruzko alderdi teknikoak, ekonomikoak eta juridikoak sakon aztertu behar direla. Horretarako, martxoaren 10ean, goizeko 9:30etan bilera bat egingo da. Bileran horretan Gobernu Juntako kideak, Ingurumen Batzordekoak eta Mankomunitateko teknikariak egongo dira.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 11:00etan, bukatutzat eman da bilkura.

**LEHENDAKARIA**

**BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA**